

## UDALAREN ERAKETEAREN AKTEA

### BERTARATU DIRANAK

- Patxi Egurrola Goyogana jauna.
- Francisco Javier Jorge Lobato Zabalbeascoa jauna.
- Argi Zameza Gonzalez andrea.
- Arnaltz Gisasola Olaeta jauna.
- Jesús M<sup>a</sup> Bilbao Arego jauna.
- Leire Astelarra Badiola andrea.
- Elixabete Eiguren Astelarra Andrea.
- Ritxar Basterretxea Agirre jauna.

### IDAZKARIA

- M<sup>a</sup> Jesús Idoiaga Uribe Andrea.

Udaletxeko Bilera Aretoan jendaurreko batzarrean bildu dira hautetsiak izan diran zinegotzi guztiak eta kargua ixten dauan alkatea, bi mila eta hemeretzioko bagilaren hamabosteko hamabietan, lehen deialdian, bagilaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 195. artikuluan eta hurrengoetan ezarri dana betez. Batu be Udala eratzeko bilerea egitearen ondoretarako batu dira maiatzaren hogeita seian egin ziran hauteskundeetan hautetsiak izan ziran zinegotzi guztiak, zazpi diralako eta danak etorri diralako bilerara. Zinegotzi horreek alde zuzenetik euren egiaztagiriak aurkeztu dabez eta kasuan kasuko nortasuna eta Korporazinoako kideen interesen erregistroan bidezkoak diran aitortpenak eta adierazopenak aurkeztu dabezala frogatu dabez.

Bilerea hasitzat jo ondoren lehenengo eta behin Adin-Mahaia eratzeari ekin jako. Mahaia horretan ekitaldian dagozan hautatu zaharrena eta gazteena dagoz eta idazkari beharrak udaleko idazkariak egingo dauz. Beraz, Adin-Mahaia eratu dabe Francisco Javier Jorge Lobato Zabalbeascoa jaunak, bertaratu dan zinegotzi zaharrena danak eta mahaiburu beharrak egingo dauzanak, Argi Zameza Gonzalez andreak, zinegotzirik gazteena danak, eta udaleko idazkaria dan M<sup>a</sup> Jesús Idoiaga Uribe andreak.

Jarraian idazkariak, mahaiburu jaunak agindua emonda, udal barrien eraketan aplikatu daitezkezan xedapenak irakurri dauz; xedapen horreen artean dagoz bagilaren 19ko 5/85 Lege Organikoaren 195. artikuluan emoten diranak

Adin-Mahaiko kideek aurkeztu diran egiaztagiriak frogatu dabez.

Egiaztagiri horreek ondo dagoz eta mahaiburuak hautetsiak izan diran zinegotziengana jo dau horreei galdetuz ea aldarrikapena egin ostean gertatzezko bateraezintasun arrazoiren batean sartuta dagozan. Bertaratu diran kideak ez dagoz gertatzezko bateraezintasunei lotuta eta horregaitik Adin-Mahaia UDAL KORPORAZINOA ERATUTA DAGOALA ADIERAZO DAU. Kideak honeek dira:

- Patxi Egurrola Goyogana jauna.

- Francisco Javier Jorge Lobato Zabalbeascoa jauna.
- Argi Zameza Gonzalez andrea.
- Arnaltz Gisasola Olaeta jauna.
- Jesús M<sup>a</sup> Bilbao Arego jauna.
- Elixabete Eiguren Astelarra andrea.
- Ritxar Basterretxea Agirre jauna.

Korporazinoa eratuta geratu da eta karguak jabetzan hartuteko goian aitatu diren zinegotzi jaun/andreek zinegotzi kargua jabetzan hartuteko legezko izapideak bete dabez horretarako Konstituzinoa beteteko berbea emonda. Egin jaken eta erantzun daben galderea hau izan da: berbea emoten dozu, zure zeure kontzientziagaitik eta ohoreagaitik, zinegotziaren karguaren obligazioak zintzo beteko dozuzala, erregeganako lehialtasunez, eta estaduaren oinarritzko araua dan konstituzinoa jagongo eta jagonarazoko dozula? Zazpi zinegotziek honako formula honegaz erantzun dabe: "Legeek holan aginduta bai, berbea emoten dot".

#### ALKATEA HAUTATZEA

Jarraian idazkariak, Adin-Mahaiak agindua emonda, alkatea aukeratzeko arau erregulatzailleak irakurri dauz; arau horreek bagilaren 19ko 5/55 Legearen 196. artikuluan emoten dira.

Zerrendaburuak diran zinegotziak, hau da, alkategaiak diranak, honeek dira:

- Jesus Bilbao Arego jauna.
- Patxi Egurrola Goyogana jauna.

Adin-Mahaiak zinegotzi jaun/andreak deitu dauz botazinoari ekitearen ondoretarako; botazinoa izenduna izan da eta emon diran botoak zenbatu ondoren emoitza honako hau izan da:

EMON DIRAN BOTOAK, ZAZPI	7
BOTO BALIODUNAK, ZAZPI	7

Eta era honetan banatu dira:

HAUTAGAIAREN IZENA	LORTU DAUZAN BOTOAK
JESUS M <sup>a</sup> BILBAO AREGO	3
PATXI EGURROLA GOYOGANA	4

Ondorioz, kontuan hartuta zinegotziak zazpi dirala eta legezko gehiengo osoa laukoa dala, hautetsia izan da PATXI EGURROLA BILBAO jauna, eta mahaiburuak adierazo dau alkate aldarrikatuta geratzen dala. Ostean agindua emon jako izendapena onartzen dauan ala ez adierazo daian eta onartu egiten dauala esan ostean berehala karguaren jabetza hartu dau alde zurretik maila pertsonalean alkatearen karguaren betebeharrak zintzo beteteko berbea emonda, eta udalburutza hartu dau.

Jarraian idazkariak honako honeek ipini dauz korporazino barriaren eskuetan aztertuak izan daitezak: 2019ko aurrekontua; aurrekontuaren betearazopen-egoerea 2019ko MAIATZAREN 31n, sarreren eta gastuen egoeren laburpena, sarrerak partidaka eta sailkapen ekonomikoaren araberrako gastuen betearazopena partidaka, MAITZAREN 31KO datako aparteko kontaketea eta diruzaintzako egoerea be emoten dauzana. Bidezko egiaztapenak egin ostean egiaztatu da MAIATZAREN HOGEITA HAMAIKAN diruzko gerakinak dagolaza korporazinoaren kutxan edo banku-erakundeetan gordeta; zenbateko hori 129.738,00 EURO (ehun eta hogeita bederatzi mila zazpiehun eta hogeita hamazortzi euro) da. Era berean, inbentarioaren balorazinoaren laburpena emoten da, epigrafeka eta era egokian eguneratuta (ondasunen inbentarioa).

Patxi Egurrola Goyogana jaunak, alkate moduan, oraintsu hil dan aurreko alkatea, Jesús M<sup>a</sup> Olaguibel, gogorazoteko berba batzuk esan dauz eta ostean adierazo dau Eh Bilduren ustez ez dagozala alderdi bi, Elantxoberen alde behar egiteko talde bakarra baino, eta guztien laguntzinoa eskatu dau azken zortzi urte honeetan nagusitu dan giro gordina eta gertatu diran haserrekuntzak arintzeko. Amaituteko bertaratu dan jendeari eskerrak emon deutzaz Osoko Bilera honetara etorteagaitik.

Bilera honen deialdian ezarri dan helburua beteta alkate-udalburu jaunak bilerea amaitutzat jo dau hamabi t`erdietan eta nik, idazkari moduan, horren fedea emon dot.